

Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko irailak 4 III. urtea

Usurbil, 49. Zenbakia



***Usurbil Kontxako
estropadan***



Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Javier, Begoña** eta zuen billoba **Imanol**. Zuen urtebetzeak orain dela hilabete inguru izan baziren ere muxu haundi bat etxekoan partez.



Zorionak maitia!! Oraingoan ere ezin-go dugu elkarrekin ospatu zure urtebetetzea irailaren 9an, baina ez nahiz ahaztu zor dizkidazun kopa horietaz. Muxutuak belarrietan. Maite zaitut. Segoviatik zure mutillguna, Barrio



Intza, Amaia eta Aitor, zorionak abuztuko partez. Hilabete beranduago bada ere gogoratu gara. Zuen lagukak. Zorionak!



Ander Lopez Collantes. San Este-bango ume politenarenzat zorionak bi urte bete dituzulako abuztuaren 24an. Laister ikastolara, asko ikasi eta hau irakur dezazun. Muxu haundi bat eta besarkada haundi bat etxekoan partez.



Leire Zubigarai. Abuztuaren 18an 2 urte bete zituen etxe-ko sorginak. Zure familiko eta frontoiko lagunaren partetik zorionak!



Gure **Begoña Maiztegik** beste urtebete bete berri du. Tira, itxura ona dauka oraindik eta hobeia izango duela ziurtatu digu. Agian operatzea pentsatzen du? Bere seme ostiyak.



Norbaitek familiak, lagunak, aldamenekoak, ezkondutakoak... zoriondu nahi baditu hemen du dohainik zoriontzeko aukera. Argazki bat eta testuan jarri nahi dena soilik ekarri behar duzu. Hurrengo alea: irailaren 17an Agurrak ekartzeko epea: irailaren 13a

Jaiotzak

Mikel Sanz Fernandez
(1998-07-19)
Santuenea

Beñat Hernandez Elexpe
(1998-07-26)
Kaleberri

Maffin Eizagirre Askarai
(1998-07-28)
Aginaga

Jaione Bengoetxea Azurmendi
(1998-08-23)
Zubieta

Maitane Telleria Herrero
(1998-08-03)
Puntapax kalea

Nagore Andres Moto
(1998-08-10)
Santuenea

Ekain Manterola Uribe
(1998-08-14)
Atxegalde

Hildakoak

1998-08-04
Joxe Mari Iturralde Sorrondegi
83 urte
Urdaiaga

1998-08-05
Jeronimo Eizagirre Eiguren
75 urte
Aginaga



1998-08-17
Angel Gimeno Jimenez
50 urte
Atxegalde

1998-08-23
Victoria Otamendi Illaramendi
83 urte
Aginaga



1998-08-29
Mari Karmen Pagola Aizpurua
60 urte
Urdaiaga

Zer irizten?



Argitaratzailea

Noaua! Kultur Elkarte
Kale Nagusia, 37
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com

Zuzendaria

Olatz Altuna

Kazetariak

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,
Nieves Aranburu, Luis Aranalde,
Zalao Arnaiz, Maribi Arrospide,
Agurtzane Solabarrieta, Joseba
Pellejero, Joxe Aginaga, Ainara
Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz,
Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria,
Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua,
Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko
Manterola eta Joxe Torregaray.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino.

Eredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,
Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa

Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker
Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Sukaldaria

Joxe Mari Sarasola

Tirada: 2.300 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikun.

Azala: 1954. urtean Kontxako estropadan Usurbilek lehen aldiz atera zuen trainera



Egin ixildu digute

Agurtzane Solabarrieta

"Usurbil informatzen"eko kazetaria

Egin egunkaria eta irratia itxi dizkigutela...! Ez al duzu entzun? Eta horren lasai jarraitzen duzu eguneroko bizitza egiten? Niri behintza zerbait falta zait, egunerokotasunaren zati txiki bat lapurtu zidaten uztailaren 15ean. Norbaitek esan dezake: hor daukazu "Euskadi información". Ez da berdina. Eta Egin irratia? Nola itxi ditzazkete "demokrazia" batean bi komunikabide egun bate-tik bestera? Gizarteko sektore garrantzitsu baten ahotsa ixildu nahi izan dute eta, era berean, herriaren informazio egarrria ekin.

Hala ere, badirudi ez dela beste munduko ezer pasa. Hasiera batean jendeak (polikoak, famatuak, gizarteko pertsona garrantzitsuak...) gogor salatu zuen komunikabide hauen itxiera, baina, orain zer? Ez al du ba uztailaren 16an bezalaxe itxirik jarraitzen? Galdera hauek behin eta berriz burura etortzen zaizkit eguerdiko 12.00etan gutokoen nuen "Eskatzea libre" Egin irratiko saioa entzun nahi dudanean.

Gauza bat argi dago: bi komunikabide hauen atzean PPrentzaren politika faxista aurkitu dezakegu. Entzun al zenituzten

itxi eta gero Mayor Oreja eta Aznarrek esandakoak? "Zer uste zuten, ez ginela ausartuko". PPrentzaren asmoa garbi gelditu da: ezker abertzalearen nortasuna suntsitu nahi dute, herri osoarena hain zuzen ere. Partidu espainolista honek HBko Mahai Nazionala espetxeratu zuen, Egin itxi dute eta orain H.Ba ilegalizatu asmotan dabilta. Hurrengoa zer ote da?

Orain, 1500 milioi pezeta behar dira Eginen antzeko egunkari berri bat martxan jarri ahal izateko. Kopuru handia ezta? Bi komunikabideak itxi eta berehala jarri zen martxan proiektu berria baina proiektu honetan herriaren parte hartzea oso garrantzitsua da. Usurbilen urte bukaerarako 8 milioi eta erdi pezeta lortzea da erronka nagusia. Gu hasi gara lanean. Abuztuan, astelehenero "Usurbil informatzen" aldizkaria argitaratzen dugu diru piska bat atera ahal izateko. Sei orriko alea da baina bere lanak ematen ditu. Astelehenetan "Euskadi información" ez egoteak uzten duen hutsunea betetzen saiatzen gara aldi berean.

Hitzak soberan daude. Itxieraren aurka bazaude mobiliza zaitetz eta hasi guri laguntzen!



Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Euskal presoak

Euskal Herrira!

Euskal presoak Euskal Herrira

"Un amplio colectivo de familiares de presos etarras invade a diario la zona de peaje de Irun repartiendo abundantemente propaganda proetarra (...). La caravana compuesta por unos veinte vehículos reparte folletos en cuatro idiomas en los que acusan a Francia y España de vulnerar los derechos de los presos. (...) Los pasquines son entregados con serias cartas de amenaza por estos simpatizantes de ETA y exhiben numerosas ikurriñas y pancartas con el lema "gora ETA". (...) Diversos conductores han denunciado estas prácticas amenazadoras e intimidatorias para los visitantes de nuestro país ya que junto a los papeles propagandísticos, informan a los conductores de las movilizaciones que convocan para conseguir el acercamiento de los presos a las cárceles del

Pais Vasco y les invitan a sumarse a ellas". (ABC 98-8-24)



Seguraski inor gutxi harrituko da, honezkero, astakeria hauek entzunda. Izan ere, egunero daukagu antzekoak entzun eta irakurtzeko aukera komunikabide "demokratiko-en" eskutik. Haien informazio garbia, egiazkoa, zuzena, objetiboa eta "demokratikoa" baita. Gurea, ordea, gezur hutsa, jasanezina, mehatxukorra, biolentoa, terrorista.

Eta horrela eraikitzen dute egunero, orduoro, komeni zaien giroa abertzale kutsua duen edonor eta edozer kriminalizatzeko, Berdin zaie astero mila bostehun kilometro egitera behartutako preso baten ama izan edo zintzoki haien egoeraren berri ematen duen egunkaria edo irratia izatea. Denok gara adar haundiko infernuko deabruak. Haiek, "demokratak", noski, aingerutxoak.

Agian haserre punttua sumatuko duzue hitz hauetan. Hala da. Harritu ezer gutxi harritzen gaitu dagoeneko. Baina, hori bai, gutxienez oraindik haserretzeko eta erreakzionatzeko adina duintasun gelditzen zaigu. Sasi demokrata hauen zitalkeriaren aurrean edo beste askoren epelkeriaren aurrean ere, gure senideen eskubideen defentsan jarduteko indar nahikoa badaukagu. Are gehiago, horrelakoak entzunda gero, premiazkoagoa ikusten dugu gure presoak hona, Euskal Herrira, haien eskuetatik ahalik eta urrunago ekartzea.

Beraz, nahi duten bezala azalduko dituzte gure ekimenak baina, gaur bezala bihar eta etzi beharbada, kalean, plazan, azokan, hondartzan edo Irungo peajea edukiko gaituzte.

Usurbilgo Senideak



Pasa den irailaren 1ean 50 metro inguruko "trastea" ekar-tzerakoan, N-634 errepideko karril bat itxita egon zen momentu batez. Izan ere, Ingemar lantoki berria egiten hasi da Atallun eta harri haundi horiek jasotzeko behar diren makinak ez dira nolana hikoak

Telesforo Ardoak

Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 943 36 12 20



TABERNA



7 t'erdietan irekitzen dugu

Goiz goizetik gosariak

Irazu kalea, 12
Tlf: 943 36 02 17

N • U Ileapaindegia

MISTOA
Solarium, depilazioa, makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A
Telefona: 943 36 19



Maite Lizarazu Goenaga

Olarriondo baserrian jaioa, 32 urte ditu gaur egun. Taberna eta jatetxeetako sukalde nahiz mostradore atzean lan egitea zer den oso ondo ezagutzen du. Orain Xabier taberna dute bere senarra eta biek.



Oso gaztea zinela hasi omen zinen tabernan lanean.

13 nituen tabernan lanean hasi nintzenean. Usurbilgo festetan bi urtez egin nuen lana. Gero 15 urte nituenean Patxi Arrutirekin hasi nintzen Bordatxon, oraindik Antxeta egin gabe zegoenean noski. Guztira 8 urte egin nituen Patxiarekin.

13 urte arte eskolan ibiliko zinen ezta?

Bai, 8. maila ere egin dut. Kalezarko monjetan hasi nintzen, gero, 42. poligonoan, orain Eguzki dagoen lekuan, "madre Consuelok" ere klaseak eman zizkigun eta bosgarren kurtsoetik aurrerakoa Udaregi zaharrean egin genuen.

8. maila bukatu ondoren ez alzenuen ikasten jarraitu?

O.H.O amaitu nuenean ez nuen gehiago ikasten jarraitu. Nire amak nik ikasten jarraituko nuelakoan zegoen, baina nik nahiago izan nuen lanean hastea. Ikasten jarraitzeko gogorik ez nuen izan. Zenbat aldiz joan ote nintzen eskolara etxeko lanak egin gabe!

Esnea banatzen amari lagunduko zenion ezta?

Goizean eskolara joan aurretik esne biltzaileari ematen genion esnea eta gero Kaleberrin etxetan esnea banatzen laguntzen nion amari. Ondoren eskolara joaten nintzen. Larunbatetan berriz, ez nuen jai izaten, esnea partitzera joan behar izaten nuen.

Gogoratzen al dituzu tabernan lanean hasi zireneko lehen egun haiek?

Bai, noski. Garai hartan ia ez ginen baserrietik kalera jeisten. Taberna mundua ez nuen ezagutzen. Edariak, tabako markak ez nituen ezagutu ere egiten. Lehen egunetan apuro haundiak

pasa nituen. Gero pixkanaka-pixkanaka ikasten joan nintzen.

Gogorra al da tabernan lan egitea?

Bai, ordu asko sartu behar izaten dira. Beste baten tabernan zaudenean hor nonbait, ordu batzuk sartu eta besteak libre dauzkazu. Taberna bakoitzean egoera desberdina izaten da. Norberak taberna hartzen duenean nolobait moldatu beharra dago eta ordu ugari sartu behar izaten dira. Santixabeletan adibidez, batzbeste bi ordu bakarrik izaten nituen lotarako. Neronek ere ez nuen sinisten nola jasaten nuen hura. Beste lan bat izan balitz ziur ez nukeela zutik iraungo.

Tabernako lanarekin zerikusia lukeen lan eskaintza egingo balizute, onartuko al zenuke?

Uste dut baietz, tabernan oso lotuta sentitzen naiz. Astean egun bat bakarrik dugu jai. Jai denean, zubiak tokatzen direnean ... guk lan egin behar izaten dugu. Beste lanen bat aurkituko banu gustora utziko nuke taberna. Egunean zortzi orduz lana egin eta asteburuan lanik ez edukitzea ederra izan behar du.

Taberna barrutik kanpotik baino gauza gehiago ikusten omen dira.

Gauza asko ikusten dira, baina tabernan eguneroko dabilzanek zure bizitzaz asko jakin ohi dute. Egun batean ez bazara etortzen esplikaioak eman behar dituzu, bezeroak ere gauza asko jakin nahi izaten dituzte. Honelako kasuetan nola hasiko gara ba gezurretan?

Saltxipin ere lan egin zenuen ezta?

Bai, orduan sukaldean egon nintzen. Lehenengo sei hilabetetan larunbatetan kamarrera lanak egiten nituen, baina gero ez.

JUANTXO
Burdindegia



Kale nagusia, 10
Usurbil 943 37 00 08

Arkume erretegia

Arkumea parrilan

Haurrentzako parkea

Zumartegi industrialdea
Aitezarra kalea, 4



Aparkalekua

Barazkiak parrilan

Etxeko berezitasunak

Ospakizunak eta despedidak

USURBIL Tel.: 943 36 60 49

**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**

IOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa

943
37 19 54

**INDUSTRI ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA**

TXOKOALDE

Iñaki Labaka



Txokoaldeko lanak amaitzekotan


U dara bukatzera doakigu. Uztaila eta abuztua azkar pasa dira eta udazkena gainen dugu. Gure auzoan ere, azken lanak egiten ari dira, beraz laister batean azken urte honetan hainbeste buruhauste eman dituzten lanak amaituko dituztelakoan gaude.

Errekarentzat bide berria egin, sartu beharreko hodi guztiak sartu eta bidea nolabait txukundu ondoren asfalto botatzea besterik ez da falta. Laister batean normaltasunera itzultzeko aukera izango dugu. Uholdeak izan zirenetik ez baitugu lasaitasunik izan. Auzo

guztia hankaz gora jarri zuen urak eta orain itxura berria du Txokoaldeko.

Auzoan bertan lanak amaitzekotan badaude ere, kamioi mugimendua izango da oraindik. Izan ere,

Erroizpeko presa bere onera ekartzea ez baita lan erraza izango. Oraingoz, uraren orde zezuden harri eta lurra kendu dituzte. Presa ingurua ere txu



kundu dute eta hemendik aurrera presa lehen zegoen bezala utzi beharko dute, uholdeek presa bera ere puskatu egin baitzuten.

KALEBERRI

Ines Kamino



Lapurrak batetik bestera

A buztuan ez da jende asko ibili herriko kaleetan. Nabaritu da bai jendea oporretan zegoela. Frontoi atzeko parkea, frontoia eta beste hainbat lekutan jende ugari egon ohi da arratsalde, abuztuan ordea, ez da horrelakorik

ikus. Kaleberri behintzat, hutsik egon da abuztuan.

Egoera hau aprobetxatu nahi izan dutenak ere izan dira. Herriko jende asko oporretara kanpora joan bada ere, Kaleberrin ez ohizko bisitariak

izan ditugu: lapurrak. "Bentatik nator bentara noa" tabernan sartu ziren lehendabizi abuztuaren 7an. Goizaldera, lehiatila txikia indarrez ireki eta dirua gordetzeko makina, musika katea

eta loteriaren salmentako dirua eramane zituzten. Azken hilbeteetan taberna honetan sartzen diren bigarren aldia da.

Bestalde, abuztuaren 18an ere, zenbait lapurreta izan ziren Eguzkitza aldeko etxe berrietan. Arratsaldeko 20.00-21.00ak gertatu zen guztia eta gutxienez hiru etxe desberdinetara sartu omen ziren. Dirudienez, txartel batekin irekitzen dituzte giltzarekin bira bat baino gutxiagoz itxita dauden ateak. Zer lapurtu zuten? Dirua, bitxiak eta horrelakoak eramane omen dituzte abuztuan bisitari izan ditugun ez ohizko turista hauek. Irailean ez ote dira berriz etorriko!



ATXEGALDE

Lapurrak izan ditugu bisitan

Amagoia Mujika



Ezusteko bisitariak izan genituen aurreko ostiralean, hilak 21, Atxegalden. Ariztitxo kaleko etxe batean lapurreta egin zuten. Etxe guztia hankaz gora jarri ondoren, bitxiak, bideoa, segurtasun kutxatilik dokumentu garrantzitsuekin... bidean harrapatu zuten guztia eraman zuten. Lapurreta arratsaldeko 4ak eta gaueko 9ak artean izan zen eta badirudi burdinezko xaflaren batekin edo lortu zutela atea irekitzea.

Lapurreta gehiago izan daitezke oraindik. Izan ere, auzotarra asko oraindik kanpoan da oporretan eta hau aukera ezin hobea da lapurrentzat.

Bestalde, eta gaia guztiz aldatuz, aurreko ostegunean, abuztuaren 27an gertatutako zerbait azaldu nahi nuke. Gaueko 9ak aldera ambulanti bat azaldu zen rotondan Alperroburu kalea non zegoen galde-tuz. Han ginenok, Atxegaldeko goiko kalera bidali genuen, Ageri-Alde ingurura. Segituan herritar bat azaldu zen esanaz ea nora bidali genuen ambulanzia, berak eskatu zuela Alperroburu kalerako. Izan ere, orduan jakin genuen txirrista alboko kalea, arrandegikoa, Alperroburu zela baita ere. Hau da, Alperroburu kalea Txirristatik Atxegalderaino doa.

Espero dut, ambulanti hura nahasketa txoro bat medio beranduegi ez iritsi izana. Kaleen izen aldaketak denok nahasten gaitu, baina ondorio oso desberdinak dituzte postariaren naahsketek eta ambulantiarenak. Egoki ote daude jarrita kaleen izenak?



KALEZAR

Kalezarko ikastola ikaslerik gabe

Begoña Zubiria



Aurreko batean Kalezarko monjen eskolaren berri eman genuen. Bertan ibilitako ikasle ohiak afari bat egiteko bildu zirela aipatzen nuen aldi hartan. Garai haiek pasa ziren. Aspaldi honetan, Udarregi ikastolako ikasleen gorabeherak jaso ditu azken 15-20 urte hauetan.

O.H.Oko lehen mailatik lau-garren edo bosgarren maila bitarteko haurrek ikasten zuten hemen garai batean. Kaleberri, Zubieta, Aginaga, Txokoalde... auzo hauetako ikasleak autobusez etortzen ziren Kalezarko ikastolara. Gero, seigarren mailatik aurre-

rako ikasketak Udarregi zaharrean, Kaleberrin, egiten zituzten.

Ikastola berria egin zutenean eskolaurreko haurrek sartu ziren Kalezarko ikastola honetan. Orain dela 11 urte, beraz, Udarregi ikastolaren eskolaurrea bihurtu zen.

Eta gaur arte hor egon dira txikiak, baina hemendik aurrera ez da ikaslerik izango hainbeste urtetan eskola izan den eraikuntza hone-

tan. Eskolaurreko haurrek Agerildera doaz eta bertako gelak hutsik geldituko dira, udalak erabilpenen bat eman bitartean behintzat.



SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta



Zorrotzeko zubiko lanen azken txanpa


Beste behin ere Zorrotzeko zubiaren konpontze lanak izango ditut hizpide tartetxo honetan. Agian aspertu xamar egongo zarete, baina oraingo honetan kexu bat dakarkizuet.

Zubi honen eraberritze lanek bi hilabetetako iraupena izango zutela iragarri zuen udalak obrak hasi baino lehen.

Maiatzaren erdi aldean hasi ziren eta ja irailan gaude. Bi hilabete pasatxo ezta? Langileek patxada haundia erakutsi dute hilabete hauetan eta arduragabekeria haundia egon dela ere ondoriozta daiteke. Egun askotan geldirik egon dira. Hasiera batean 27 egunetako geldialdia egin

zuten eta gero, abuztuaren erdi aldera, baten oporrak eta bestearenak zirela eta beste aste pare batean egon ziren deus egin gabe. Hala ere, oinezkoen pasabidea amaitzeko gutxi falta dela dirudi eta laister inongo arazorik gabe zeharkatzeko aukera izango dugu.

Barandila izan da azken asteetako gai nagusia. Denda eta tabernetan batzuen eta besteen iritziak entzun ditut. Askoren ustetan hormigoizko paretak izan beharko lituzke, zubi zaharrak zituen antzera. Besteen esanetan, berriz, barandila ezin hobea da zubiarentzat. Kontuak kontu, niri



dagokidanez behintzat, zubi zaharrarentzako barandila "moderno" hori ez da oso aproposa eta itsusi xamarra ere bada. Dena den, gure iritzi eta kexuak plazaratu aurretik amaitu arte itxaron beharko dugu. Ea behingoz amaitzen duten zoriareko zubiak!

URDAIAGA

Eider Jauregi



San Esteban txiki arte!

Abuztuaren hasiera urrun Agelditzen da, baina San Estebango jaien oroimena gure buruetan daukagu oraindik. Abuztuaren 1ean hasi eta hilak 4 a bitartean ospatu genituen gure auzoko jaiak. Beti



bezala jendeak ez zuen huts egin, baina agian aurreko urteetan baino kanpoko jende gutxiago gerturatu zen San Esteban aldera. Hala ere, giro ona izan genuen nagusi. Dantzariak, dantzaldiak, oilasko

biltzaileak, hubilatuen bazkaria, herri kirolak ez zen ezer falta izan. Orain, abenduan San Esteban txiki ospatu eta datorren urte arte itxaron beharko dugu.



AGINAGA

Eskola berria ikasturte berrian

Izaro Aizpurua



Datorren ikasturtea begibistan dugu. Guk ez hainbeste baina bai gu baino gazteagoek. Irailaren 9a aldera jo eta ke ekin beharko diete ikasketei. Aginagan bada berrikuntza haundi bat. Urte askotan eskola txikia egon den lekua utzi eta elizaren lokaletara pasako dira.

Azken bi hilabetetan eskola berria prestatzen ibili dira zenbait langile. Gelak banatu, pareta berriak egin, argindarra pasa... hezkuntza sailetik jarritako baldintzak bete eta Aginagako haurrentzako leku egokia jartzen jardun dira. Orain ia amaitu dituzte lanak.

Azkenengo lan txikiak egin eta dena prest egongo da Aginagako haurrentzako eskola berria.

Bestalde, San Praiskuak gainean ditugu. Hilabete besterik ez da falta auzoko jaietarako eta hori ziztu bizian pasatzen da. Azken urteetan festa bi asteburutan egiten bada ere aurten zailtasunak izan dira. Izan ere, bigarren asteburuan intsumiso eguna eta aurreko ekitaldiak egingo

dira Usurbilen. Hala ere, urtero egiten den futbol txapelketa hastear dago. Porteriak jarri dituzte udaleko langileek eta finala San Praisku inguruan izaten denez laister ekingo diote txapelketari.



ZUBIETA

Hemendik aurrera errebote festa

Xabier Arregi



Irailatik aurrera "Endika Abril" txapelketa ikusteko aukera izango da Zubietako plazan. Txapelketa honen 35. edizioa gainean dugu eta irailaren 6an jokatuko dira lehen partiduak.

Zubieta Pilota Elkartek bigarren aldiz parte hartuko du Billabona eta Zubietako plazetan jokatzeko den txapelketa honetan eta bi talde izango dira gainera, Ipar Euskal Herriko talde indartsuei aurre egiten saiatuko direnak. Kontutan hartu behar da, Zubietak, Endika Abril errebote txapelketaren historian behin bakarrik lortu duela garaipena. Endika Abril txapelketaren aurre-

tik ordea, urtean zehar zenbait txapelketa jokatu dituzte Zubietako Pilota Elkarteko pelotariak. Honela ba, pasa den igandean, abuztuaren 30ean, txapelketa lokaleko errebote finala jokatu zen. Bertan **Kerman Rekondo, Imanol eta Isidro Zaldua, Endika Garcia eta Gaizka Iparragirrek** osatutako boskotak lortu zuen garaipena.

Bestalde, urrian Mexikon jokatu den Munduko pelota txapelketara joateko aukera izan dezakete Zubietako Pilota Elkarteko zenbait pelotarik. Erakusketara modura, erreboteko talde bat eramateko aukera aztertzen ari baitira.



Baba beltz txikiaren kofradiaren bazkaria

Abuztu erditik aurrerako egunetako batean bildu ohi dira urtero. Orain dela 15 urte, abuztuko egun batean, Kalezar eta Kaleberrikoak bildu eta baba beltz txiki bazkaria egin zuten. Iaz, ordea, bazkaria baino zerbait gehiago bilakatu zen urteroko topaketa hau: baba beltz txikiaren kofradia osatu zuten. Abuztuaren 27an egin zuten bazkarian Joxe Luis Ibargoien izendatu zuten kofrade berria.

Usurbil, Lasarte, Hernani eta Donostiako 32 pertsona Andatzpe elkartearen elkartu ziren pasa den hilaren 27an. Baba beltz txikiaren kofradiak urtero egin ohi duen bazkariaren ordua zen. Felix Sarasola sukaldariak prestatutako bazkaria mahaira atera, orduko jan eta kofradiako bigarren kofrade izendatzera pasa ziren. Iaz **Felix Sarasola** sukaldariari omenalditxo bat eskaini zio-



ten kofradiako kideek eta kofrade izendatu zuten. Aurtun, **Joxe Luis Ibargoien** kalezartarrantzat izan dira kofradiako txapela eta kapa. Hortik aurrera baba beltz txikiaren kofradiaren ikurra izango dena aurkeztu zuen Jaime Albillos donostiarrak. Berak egindako ikurrean babak eta atxurra agertzen dira.

Baba beltz txikiaren bazkaria egiten orain dela 15 urte hasi ziren. Kalezar eta Kaleberriko zenbait pertsona elkartu eta baba beltz txiki bazkari bat egitea pentsatu zuten.

"lehen, gaztetan, ikamikan ibiltzen ginen, San Juanetarako larra biltzerakotan, borroka bat baino gehiago eginak gara. Baba beltz txikiarekin lehen borrokan ibiltzen ginenak bazkaltzen elkartzen gara". Hala ere, azken urteetan Hernani eta Donostia aldeko jendea ere etorri ohi da bazkaltzera. Izan ere bazkari honetara edonor joan daiteke, ez diote inori atea ixten. "Guk bazkariaren eguna jartzean izena eman behar izaten da eta izena edonork eman dezake".

Joan den urtean, aldaketa garrantzitsu bat eman zen. Baba beltz txikiarekin bazkaltzeko ohituraren ondorioz, "baba beltz txiki kofradia" eratzeko erabakia hartu zuten. Kofradia hau ez da ofiziala baina elkarte bezala funtzionatzeko asmoa dute.


Josu Aranberri



BAR USURBIL

*Pintxo eta bokata
goxo-goxoak*

Eguzkitza



TXIRIBOGA TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

EGIN ZAITEZ NOAUA!KO BAZKIDE

Herri bide gehiago konponduko dituzte

Uztailean zenbait herri bide konpondu ondoren, bigarren fase batean bide gehiago konponduko dira. Leku batzuetan irailaren hasieran hasi ziren lanean eta pixkanaka-pixkanaka 13 lan desberdin burutuko dituzte.

1- Lau Haizeta etxetik Ibarrolarako bidea asfaltatu.

2- Urdaira bidea hormigoitu Arburuko bide gurutzetik behera.

3-Maskulaitz aldapa txukundu.

4- Egioletako errekan bidea pasa.

5- Arratzainetik-Arratzain berriko harrobiraino hodiak pasa

6- Txokolatenetik Ibarrolarako bidea garbitu.

7- Aranerrekako bidea txukundu eta ingurua garbitu.



8- Arrate, Olloki eta Kalezar-Bentazikin bideetako marrak margotu eta seinaleak jarri.

9- Arburuko bidea hormigoitu.

10- Aitzondo baserrira doan bidean hormigoia bota.

11- Irabiko bidea asfaltatu.

12- Bulano bidea konpondu.

13- Aritzeta bidea txukundu.

Bestalde, Etxealdiara sarrera berria egiten urtea amaitu baino lehen hasiko dira. Bete-lana amaitzekotan dira, 70-80 kamioikada besterik ez baitira falta horretarako. Hau amaitzean hasiko dira bidea egiten.

Irailaren 9an pleno berezia egingo da

Abuztuan oporretan egon ondoren udala bere onera dator pixkanaka-pixkanaka. Hasteko, pleno berezia egingo dute datorren irailaren 9an, asteartean. Bertan bi gai desberdin landuko dira:

Alde batetik Eroskiren gaia. Lurren kalifikazio aldaketaren arazoak konpondu dira azkenean. Foru Aldundiak kalifikazio aldaketa onartu ondoren buruhauste ugari eman dituen tramitea atzean utzi dute. Bide batez, udalak Eroskik emandako lehen diru sarrera jaso

du, kalifikazio aldaketa onartu ondorengo. Horrekin batera, Eroski eta errepede sailarekin Eroskirako sarrerak etab. egiteko konbenio egiterakoan adostasunera iritsi dira eta diputatuen kontseiluak behin behingoz onespina emango dio laister plan partzialari. Hau bi hilabeteren buruan onartzea espero du **Joxe Antonio Altuna** alkateak.

Bien bitartean, Eroskiren ize-nean hipermerakatu berri honen proiektua egiten hasi dira, izan ere, Asteasuain ingu-

ruko planoak etab. eskatu dizkiote udalari proiektu hori egin ahal izateko.

Beste aldetik, Aginagako Elutx sektoreko normen behin-behineko aldaketa landuko da plenoan. Protekzio ofizialeko 18 etxe egin ahal izateko normen aldaketa egin beharra dago, behin-behinekoz onartu eta gero diputaziora bidali ahal izateko. Beraz, arazorik ez badago, hau onartu ezker 6 hilabete barru etxebizitza hauek egiten hasiko direlakoan dago alkatea.



ARRAINDEGIA
PELLO

Arizeta Kalea, 1
Tlf 943 36 21 64
USURBIL



**URTINEA
LORATEGIA**

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 943 36 22 55

**LIZARDI
LIBRYDENDA**

*Komunioetarako opari
egokienak
aurkituko dituzu!*

K/ Etxebeste, 1 Telf: 943 36 11 15



Usurbilek Kontxako estropadan parte hartu zueneko bi urte haiek...

Arraun munduan iraila izaten da hilabeterik beroena. Hobe esanda, iraileko lehenengo bi igandetan termometroak gorantz egiten du Donostia aldean. Kontxako estropadak dira. Horia, morea, arroxax... kolore ugari eta giro bikaina. Usurbilek ere garai batean parte hartu zuen estropada honetan. 1954. urtean izan zen lehenengo aldia eta 1956an bigarrena eta azkena. Bigarren urte honetan Aginagak ere atera zuen trainera eta bien arteko lehia ikusi ahal izan zen.

Ekimen haundiko gazte usurbildar batzuek Andatzpe izeneko kirol elkarteak sortu zuten 1948. urtean. Elkarrekin Kale Nagusiko 29.eko etxeko sotoan zuen egoitza. Lehenengo urteetan pelota eta bolojokoa landu zituzten, batez ere. Gerora arraunean proba egitea erabaki zuten; aurreko urtean bateletan hasi ziren eta, ondo ibili zirenez, 1954. urtean traineriletan Espainiako txapelketara joan eta, denen ustekaberako, bigarren iritsi ziren; bandera irabazi zuen

Michelinen atzetik, segundu batzuetara. Horren ondoren trainerua osatzea erabaki, koadrila osatu eta Kontxako estropadan parte hartzeko prestatu ziren.

Garai hartan Usurbila bisita egin ezkerre jendea ikaragarri harro eta pozik zebilela ikus zitekeen eta kalean ez zen beste ezertaz hitz egiten: estropadak. Andatzpe elkartearen sekula baino jende gehiago ibili zen, aurrera eta atzera, denak zerbaitean lagundu nahian, eta sekulako ilusioa eta itxaropena entzematen zen herrian; giroa harrigarria zen, itsasorik ez duen herria izanda.

Andatzpe Elkartearen Zuzendari Batzordea usurbildar hauek osatzen zuten: presidente, **Bixente Lizarralde**; presidenteorde, **Teodoro Aranburu**; idazkari, **Joxe Migel Larrañaga**; diruzain, **Nikolas Aizpurua** eta Batzordekide **Martin Manterola** eta **Manuel Larrañaga**. Gizon hauei eta arraunlariei, jakina, zor zitzairen herrian sortu zen giro eder eta

pozez gainezka hura.

Herritarrak gustora izango ziren bandera irabazi edo azkenak ailegatu, baina arraunlariak prest zeuden beste zazpi traineruei aurre egiteko. Usurbildarrekin batera hauek ziren irailaren 5 eta 12an Kontxako bandera irabazten lehiatu zirenak: Pasaiaiko San Juan, Renteria, Zumaia, Sestao, Santander eta joan den urteko irabazle eta ordungo faboritoak: oriotarrak. Lezotarrek uko egin zioten parte hartzeari, hiru mutili arraun egiteko jarritako debekuarengatik.

Inork ez zuen itsasoarekin zerikusia zuen lanbiderik, ezta urrutitik ere, patrioiak berak ere ez

Usurbilgo mutilak gogor aritu ziren entrenatzen patrioi lanean zebilen **Ramon Arreseigorren** agindupean. Hau traineriletan ibilitako patrioi berbera zen. Kontxarako hamalaukoa Ramonek eta ondorengo 16 mutiletako hamairuk osatuko zuten: **Migel, Ramon eta Julian Pikabea** anaiak, **Santiago eta Jose Zumeta, Manuel Ikutza, Jose Aranburu, Inazio Ibargoien, Jose Antonio Etxeberria, Martin Errasti, Jose Maria Urdangarin, Inazio Labaka, Jose Izeta, Jabier Orbegozo, Bernardo Aizpurua eta Jose Kamino**.

Jose Izetak hogeita bederatzita urte zituen, gainontzeko guztiak 18 eta 20 urte bitarte-



1956. urtean Usurbilgo traineran parte hartu zuten arraunlariak Donostian entrenamendua burutu eta gero.



koak ziren. Nekazariak, bulegariak, mekanikoak... ia denetik zegoen estropalarien artean, barberoa ere ba omen zegoen, inork ez zuen itsasoa-rekin zerikusia zuen lanbiderik, ezta urrutitik ere, patrioiak berak ere ez.

Lanbidez herriko aguazil eta bizikleta mekaniko eta zaletasunez arraunzale amorratua zen usurbildar batek esan zigun ez uzteko aipatu gabe, inola ere, arraunlari den-denak, usurbildarrak ziren, herrikoak.

Iraileko lehen bi igandetan jokaturako estropadan, **Ramon Arreseigorren** agindupean uretaratu zen taldeak bosgarren postua eskuratu zuen. Favorito nagusia zen Oriok ezin izan zuen garaipenik lortu eta Kontxako bandera Bizkaia aldera joan zen, Sestaok lortu baitzuen garaipena. Lehen igandean bigarren txandan irten ziren usurbildarrak. Lau trainera ziren eta bertan hirugarren postua eskuratu zuten, Sestao eta Orioren atzetik. Hala ere, ohorezko txandatik kanpo gelditu ziren, lehenengoan Pasaiaiko San Juanek, Zumaiak denbora hobea egin baitzuten.

Bigarren igandean, kotsolazio tandan, garaipena eskuratu eta bosgarren postuaz

20.000 pezetarekin itzuli ziren Usurbil aldera. Bi estropadak burutzeko, uztira, 45 minutu, 42 segundu eta 45 ehuneneko behar izan zituzten, irabazleak baino 2 minutu baino gehiago.

Usurbilek, 1956. urtean parte hartu zuen Kontxako estropadetan bigarren aldiz. Urte honetan, Txokoaldeko Erroizpe elkarteari esker atera zuten trainera. Taldea antolatu eta arraunlariak prestatzeaz **Agustin Illarramendi** presidentea bera arduratu zen.

Kontxan parte hartzen zuten lehen aldian, 1954. urtean bosgarren postua eskuratu zuten

Erroitzpek 17 gizonez osatutako koadrila aukeratu eta Kontxako estropada aurreko bi asteetan Donostiako uretara joaten ziren entrenatzera. **Joxe Izeta, Antonio eta Joxe Mari Urdangarin, Joxe eta Xanti Zumeta, Joxe Kamino, Inaxio Labaka, Pedro Goikoetxea, Inaxio Ibargoien, Jabier Orbegozo, Manuel Illarramendi, Bernardo Aizpurua, Joxe Torregarai, Bixente Fagoaga, Justo**

Kamino eta Gregorio Arrilagak osatzen zuten taldea. 17 haueetatik bederatzik 1954an ere parte hartu zuten, baina beste guztiak Kontxara lehen aldiz joateko aukera zuten.

Arraunlarien batzbesteko adina 25 urtekoa zen. Inaxio **Urdangarin, Pedro Goikoetxea eta Joxe Torregarai** ziren gazteenak, 21 urte besterik ez zituzten. Zaharrenak berriz, Gregorio Arrilagak 34 urte zituen. Tripulazioaren batzbesteko pisua, 75 kg.koa zen eta **Antton Vaqueriza** donostiarra zuten patrioiak.

Urte honetan, gainera, Aginagak ere bere trainera atera zuen. 1931 eta 1932an lehen aldiz Kontxan parte hartu ondoren, 17 eta 28 urte bitarteko arraunlarietako taldea zuten. 1954an Usurbilgo traineruaren patrioi izandako **Ramon Arreseigorren** agindupean, **Martin Errasti, Ramon, Julian eta Migel Pikabea, Manuel eta Juan Ikutza, Joxe, Antonio eta Lorenzo Manterola, Tomas Bereziartua, Manuel Alkorta, Jose Luis Zaldua, Antonio Arrilaga, Joxe Mari Bengoetxea, Andres Bruño eta Joxe Aranburuk** osatzen zuten taldea.

Nor gelditu zen lehenago, Usurbil edo Aginaga? **Joxe Torregaraien** esanetan ez zen kolorerik egon; "Aginagak bigarren postuan amaitu zuen, gu berriz azkenengo postuarekin itzuli ginen etxera". Hurrengo urtean, ordea, Aginagak ez zuen hutsegini eta bere historian lehen aldiz etxera ekarri zuten Kontxako bandera. Bandera irabazi zutenen artean zegoen Batista Olliden, orain dela gutxi hil den Orioko arraunlaria. Bera da Kontxako bandera gehien irabazi dituen arraunlaria, 13 guztira eta horietatik bi Aginagarekin.

**Inaki Iturain
Josu Aranberri**

Usurbilgo gudariak omendu dituzte



Joan den abuztuaren 24an Bordatxo aurreko errotondan egin zen Euskal Herria Askaturen konzentrazioan **Joxe Mari Aranzastroki "Arrantzale"** eta **Jose Luis Segurola "Nazkas"** Usurbilgo gudariei omenaldi txiki bat egin zitzairen. "Nazkas" orain dela 15 urte hil zen, 1983ko abuztuaren 14an, Usurbilen, N-634 errepi-de aldamenean auto barruan eskuartean zera-biltzen hogeita hamar kilo nagoritzat osatutako lehegailuak eztanda eginda. "Arrantzale", berriz, 1990ko abuztuaren 21ean hil zen, Mamut hipermerka-tuaren inguruan lehegailu bat ateratzera zihoala hau lehertu zitzaionean.

Guardia Zibilak Zubietan etxez-etxe

Abuztuaren 20an lehendabizi eta abuztuaren 25ean gero Zubietan inguruan guardia zibilak ibili ziren bertako etxe eta baserrietan galderak egin. Sei patrol eta zenbait moto zituztela Zubietako bide estuetan ibili ziren abuztuko azken bi asteetan. Etxe batzuetan zenbat pertsona bizi diren, zenbat kotxe dituzten, zein matrikula duten... bezalako galderak egin dituzte, beste batzuetan, berriz, baserriak zenbat logela dituen galdetu eta leihoak kontatzen ibili dira. 1997ko ekainaren 1ean izandako uholdeen ondorioak jakiteko tramiteak direla ere esan dute etxeren batean.



Herri giroa San Estebango jaietan



Abuztuaren lehen astean Sanesteban jaiak izan ziren Urdaian. Abuztuaren 1ean hasi eta 4a bitartean jai giroa nagusitu zen Andatzaren babesean dagoen auzoan. Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere jendeak ez zuen huts egin, nahiz eta azken urteetako jaiekin alderatuz jende gutxiago hurbildu den aurten Urdaia aldera. Ohitura zaharrari segituz zahagi banake izan zen San Esteban egunean, abuztuaren 3an. Horrez gain, beste ekitaldi ugari ere izan ziren bertan: oilasko biltzaileak, haur jolasak, dantzaldiak, bertsolariak, toka txapelketa...

Zinkildegia

Lentzeria,
gizonezkoentzat arropa,
haurren jantziak,
etxerako behar dituzunak

Aritzeta 1 behea,
20170 Usurbil ☎ 943 36 17 87

GALARRAGA GARRAIOAK

* LUR ONGARRIAK
* ZABOR BILKETA
* ZISTERNA BEREZIAK

Telf.: 943 37 01 46

PATRI

J A T E T X E A

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)

BIOLAN ELKARTEA JENDE BILA

Biolan ingurugiro elkarteak sortu zenetik ez da denbora asko pasa. Gaur egun ingurugiroa eta batez ere gure inguruko lur eta zelaiak sufritzen ari diren hondamendiez kezkatuta, zenbait ekologistek talde hau sortzea erabaki zuten. Orain zenbait egitasmo dituzte eskuartean. Horien artean Foru Aldundiari Andatza parke natural bihurtzeko eskaera egiteko asmoa dute. Egitasmo hau lantzeko, ordea jendea behar dute. 943-366739 telefonora deitu.



Ziortza Gazte Elkarreak antolatuta Errioxa aldean Zibili ziren Usurbilgo gazteak uztailen zehar, Cameros bailaran dagoen Ortigosako Peñaloscintos auzoan kokatuta dagoen kanpamentuan egon ziren bi txandatan banatuta. Zaharrenen txanda izan zen lehendabizi eta gazteenak egon ziren gero, uztaileko azken bi asteetan. Aurten, gainera, lehendabiziko txandan Billabonako zenbait neska-mutil egon zien usurbildarrekin batera.

MUS TXAPELKETA ANTAXETA TABERNAN

Antxeta tabernako mus txapelketa datoren irailaren 19an hasiko da. Irailean hasi eta apirila arte larunbatero jokatu den txapelketa honetan parte hartu ahal izateko irailaren 19ko arratsaldeko 16.30ak baino lehen eman beharko da izena. Bikoteko 1800 pezeta ordaindu behar dira eta 20 bikote izango da gutxienez kopurua. Txapelketako azken sariez gain, irailaren 19an lehendabizikoari trofeoa emango zaio eta hileko azken larunbatean ere bai.



Elizako lanak aurrea doaz. Bai barru aldean eta bai kanpo aldean lanean dihardute uztaila ezkerotik. Dorrean, arriskua kentzeko behin behineko konponketak egiten ari dira, eta bide batez dorrearen kanpoaldean dauden belarrak eta zikinak kendu dituzte. Horretarako 40 metro inguruko andamio ikusgarri bat jarri dute dorrearen kanpoaldean.



Pasa den abuztuaren 29an limousin arrazako behien VI. Euskadiko lehiaketa egin zen Elgoibarren. Azken urteetako bideari jarraituz han zen **Juan Altuna** usurbildarra bere behiekin eta lehen sari bat ere lortu zuen. 4-5 urteko behietan eskuratu zuen goreneko saria. Antolatuzaileek limousin arrazako behiak Euskadin hartzen ari diren maila altua azpimarratu zuten.

XABIER EDARITEGIA


- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 78

Iturgintza - Gasa - Berokuntza



J. Orbegozo



Bizkarra 1, 1.esk.

☎ 37 29 37 - 36 59 26

TABERNA JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL

Asier Zubiria: Bidasoako jokalaria berria

Usurbildar gazte hau 9 urterekin hasi zen esku-baloian jokatzen. Infantil mailan Euskadiko selekzioan aritu da eta Espainiakoarekin ere kontzentrazioan ibilia da. Bera atezaina da eta aurten Bidasoak fitxatu du, aukera ezin hobea bere abileziak lrun aldean erakusteko. Aupa Asier!

Betidanik atezain postuan aritu al zara?

Bai, 9 urterekin hasi nintzen eta jokalaria gisa nuen trebezia ikusita, nahiago atezain.

Kirol mailan ibilbide ezin hobea duzu...

Beno, infantiletan Euskadiko selekzioan aritu naiz eta Espainiakorekin entrenamenduren bat edo beste egin dut, baina orain arte ez dut inoiz jokatu.

Eta aurten Bidasoarekin?

Bai, duela urte pare bat izan nuen Bidasoaren eskaintza baina gurasoek gazteegia nintzela uste izan zuten. Aurten berriz eskaini didate beraiekin jokatzeke aukera eta onartu egin dut.

Ja aurrendenboraldia hasi duzue...

Bai, bada hilabete entrenatzen hasi ginela.

Eta nola moldatzen zara lruna joan eta etortzeko?



Orain lrunen egoten naiz aste osoan. Bidasoako beste bi jokalarirekin nago pisu batean eta Usurbila asteburuetan etortzen naiz.

Orain, nolakoa da lrunen zure ohiko egun bat?

Normalean goizeko 9.00ak edo 10.00ak aldera entrenamendua izaten dugu. Ondoren bazkaldu eta arratsaldean, 19.00ak aldera edo, beste entrenamendu bat. Zenbait egunetan hiru entrenamendu ere izaten ditugu.

Orduan, nola bateratuko dituzu kirola eta ikasketak?

Ahal dudan modura. Hala eta guztiz ere, behin ikasturtea hasita normaltasunera itzuliko naiz. Etxera etorri eta astean hirutan edo joango naiz entrenatzera.

Jubenilekin zabilta, ezta?

Berez denboraldian jubenilekin arituko bandaiz ere, orain profesionalekin entrenatzen dut. Seguruenik hurrengo astean edo hasiko naiz nire taldekideekin.

Ez da samurra izango profesionalekin entrenatzea...

Disziplina handia dago eta hasieran gogorra egiten zaizu. Nahikoa galduta egoten zara, beldurtuta profesionalen artean, baina dagoeneko gainditu dut hori. Orain normaltasun osoz entrenatzen dut.

Nola ikusten duzu zure etorkizuna?

Ilusioz, baina burua galdu gabe. Profesional izatea oso urrun dago niretzat. Gainera badakit aurtengoa urte gogorra izango dela niretzat, azken urtea baita jubeniletan.

Bukatzeke, zure ustez zein ezaugarri izan behar ditu eskubaloiko atezain on batek?

Erreflexu onekoa, azkarra eta malgutasun handikoa izatea.

Amagoia Mujika

ZENDOIA-ENEA

TABERNA

Goizeko 7tatik irekia

Gosariak, hamaiketakoak, eguneroko menuak eta bokatak

Kale Nagusia, 25 Tlf. 943 36 25 60



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Xabier Carbayeda eta Goyo Martin

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA



ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

TEL. 943 36 61 97

Endika Abril txapelketa hastera doa

Zubietako plazan errebo-
tea izango da nagusi
datozen hiru hilabetetan.
"Endika Abril" errebote txapel-
ketaren 35.ekitaldiari hasiera
emango zaio datorren iraila-
ren 6an. Aurten azken urtee-
tan baino talde gehiagok
parte hartzen dute. Txapelketa
eskuratzen saiatuko diren tal-
deak 12 izango dira .

Irailaren lehen igandean hasi
eta azaroa arte luzatuko da
Endika Abril txapelketa.
Eguraldiak laguntzen badu
azaroan izango dira finalak,
eta bitarte horretan errebote-
az gozatzeko aukera izango
du igandetan Zubietako pla-
zara inguratzen den edonork.

Ustaritze, Hasparren,
Baiona... Ipar Euskal Herriko
taldeak dira faborito nagusiak.
Iaz Hasparrenek lortu zuen txa-
pela Baionari irabazi ostean.
Aurten, azken urteetan baino
talde gehiagok parte hartuko
dute eta lehia ere haundia-
goa izango da. 12 taldeak 4
taldeko hiru multzotan bana-
tuta daude:

1. multzoa: Kanboarrak, Zu-
bieta I, Hendaia eta Baiona I.
 2. multzoa: Uztaritze, Bear
Zana II, Zubietako II eta Baigorri
 3. multzoa: Hasparren, Salis,
Bear Zana I eta Baiona II
- Final laurdenetarako multzo
bakoitzeko bi lehenengoak

eta hirugarren gelditzen dire-
netatik bi talderik onenak sail-
katuko dira.


Txapelketa honetako parti-
duak Zubietako eta Billabonako
plazetan jokatzen dira. Aurten
hiru partidu izango dira igan-
dero. Aste batean bi jokatuko
dira plaza batean eta bat
bestean, hurrengo astean
beriz alderantziz. Aurten fina-
lerdiak Zubietako plazan joka-
tuko dira eta finala Billabonan.

Irailaren 6an hasiko da txa-
pelketa eta Zubietako plazan
partidu bakarra jokatuko da.
Zubietako I Kanboarrak taldea-
ren aurka ikusi ahal izango da
goizeko 11.00etatik aurrera.

Endika Abrilen parte hartuko duten Zubietako taldeak



ZUBIETA I:
Goian: Jabier Mariezkurrena, Isidro Zaldua,
Imanol Zaldua
Behean: Endika Garcia eta Gaizka Iparragirre



ZUBIETA II: Joseba Aizpurua, Imanol Aizpurua,
Xabier Arregi, Jose Antonio Segurola eta
Gorka Sanchez.

**BORDATXO
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Aritzeta. 2 Tel.: 943 37 10 42

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Andatza
karrozeria

Gumer Sánchez

Osinalde industrialdea
Errota Berri kalea ☎ 943 36 36 77
USURBIL

Hitz egin, adierazpen askatasunarengatik!

Egin egunkaria eta Egin irratia pasa den uztailearen 15eko goizaldean ixildu zituztela gauza jakina da. Baltasar Garzon epailearen aginduz, Eginek Hernanin duen egoitza nagusia eta gainontzeko herrialdeetako delegazioetan sartu zen Polizia Nazionala. Egin egunkaria eta irratia prezintatzeko agindu zuen epaileak. Bertako langileak lanik gabe gelditu dira eta horien artean zenbait usurbildar aurkitzen dira. Honela, orain dela zortzi hilabete inguru sortu zen herriko "Hitz egin plataformak" protagonismo haundiagoa hartu du orain.

Egin egunkariak irailaren 29an bete behar zituen 21 urte. 1977. urteko irailaren 29an, ostegunetz, argitara atera zen Egin-en lehen alea. "Ahalik eta haundien, baina aldi berean ahalik eta banatuena izango zen kapitala lortu nahi zen, egitasmoa benetan herrikoa eta parte-hartzailea izan zedin". 2000 eta 5000 pezetako partehartzeekin 100 milioi inguru lortu ziren, 32.500 partehartzailek emandako diruaz.

Orain S.A. egunkariaren argitaletxea sortzarekin batera bere kapitala akziotan banatu zen. Miioko emaleen artean milioi bakoitzeko ordezkari bana izendatu zen. Honela, bigarren kanpaina batean 151 milioiko anplazioa egin zen, guztia 131 bazkidetan oinarrituta

Orain, antzeko pausoak eman beharko dira. Egin egunkariari ez diote 21 urte betetzen utzi, uztailearen 15ean itxi baitzuten Egin irratiarekin batera. Baltasar Garzon epaileak emandako autoaren arabera Egin izenarekin ezin zuten ezer argitaratu eta Eginen egoitza guztiak bestelako agindua eman arte itzita gelditu ziren. Honen aurrean, Egin-eko langileak "Euskadi información" izena duen egunkaria ateratzen hasi ziren; hori bai, baliabide gutxirekin eta askoz ere orri gutxiagorekin.

Usurbilen "Usurbil informatuz" ateratzen da astelehenetan Usurbilen, ordea, Egin-en aldeko "Hitz egin plataforma" orain dela zortzi hilabete inguru

ru sortu zen. Herriko zenbait tabernarik osatu zuten talde hau eta ahalik eta bazkide gehiago lortzea zen hauen helburua, Egin-en aldeko zenbait ekintza bultzatzea ahaztu gabe.

Uztailearen 15ean Egin egunkaria eta irratia ixtean, protagonismo haundiagoa hartu zuen talde honek. Honela, abuztuaren 10ean "Usurbil informatuz" aldizkariaren lehen alea argitaratu zuten. **Aitor Egiletaren** esanetan, "Euskadi Información ez da astelehenetan ateratzen. Honela, hutsune hori betetzeko aukera ikusi genuen. Hemen atera aurretik Oreretan berdina egiten zuten. Hala ere, astelehenetako hutsunea herriko, Euskal Herriko eta nazioarteko berriez betetzeaz gain egunkari berria ateratzeko lortu behar diren 1000 milioi ateratzen laguntzea da gure asmoa".

Dagoeneko 4 ale argitaratu dituzte eta herriko kioskoan eta zenbait tabernatan egon ohi da salgai. Guztira 60 ale ateratzen dituzte. Honekin batera, beste ekimen bat jarriko dute martxan. 1000 milioi lortzeko ahaleginetan, Usurbilen 8.500.000 pezeta lortzea da helburu nagusia. Horretarako akzioak erosi ahal izango dira. Bi motatako akzioak egongo dira: milioi bat baio duten akzioak eta 100.000 pezetakoak. Azken kopuru hau dena batera edo zatika ordaindu ahal izango da.

USURBIL

ASTELEHENA 17
1998KO ABUZTUA



EGUZKITZAKO BIDA DAGOENKO BUKATUTA. Herriko lehen alea irailaren 29an ateratu zen. Hurrengo urtean, irailaren 29an, ostegunetz, argitara atera zen Egin-en lehen alea. "Ahalik eta haundien, baina aldi berean ahalik eta banatuena izango zen kapitala lortu nahi zen, egitasmoa benetan herrikoa eta parte-hartzailea izan zedin". 2000 eta 5000 pezetako partehartzeekin 100 milioi inguru lortu ziren, 32.500 partehartzailek emandako diruaz.

Elkarrizketari baietza

Eusko Jaurlaritzak udara honetan burututako inkesta batetan, EAEko biztanleriaren %94ak Euskal Herriak gaur egun jasaten duen gatazkaren itenbide egokia elkarrizketa dela dio.

Horia nagusi Zarauzko itsasaldean

Orain aurrerantzat 1000 inguru erabiltzen dituzten Zarauzko itsasaldean, San Esteban taberna 1998ko irailaren 4an ireki da.

EGIN EZ DUTE IXILDUKO !

Usurbil informatzen Usurbilgo Hitz Egin plataformak aterako duen aldizkaria duzu. Astelehenetako izango gara zurekin aste osoko berriak azaldu asmoz.

Honela lortzen dugun dirua, egunkari berria sortzeko behar diren 1.500 milioiak osatzen laguntzeko erabiliko da.

**San Esteban
taberna**

Ondo pasa
Santueneako festak!

☎ 943 36 27 76

**MERKE
taberna**

Festa zoriontsuak pasa!

Santuenea ☎ 943 36 18 75

**ZORIONAK
SANTUENDAR
GUZTIOI!**



**BAZKARIAK
ETA AFARIAK**
Santuenea 23
Tlf.: 943 36 27 34

Inaxio Usarralde: "Eginen historia amaitu da"


Eginen lan egiten zuten 210 langile kale gorrian daude Egin egunkaria eta irratia itxi zituztenetik. Langile hauetako bat dugu Inaxio Usarralde. Ordutik hona ia bi hilabete pasa dira. Itxieraren inguruko kontuak azalduko dizkigulakoan berarengana jo dugu.

Uztailaren 15ean Egin itxi zuten. Honelako ekintzarik espero al zenuten?

Ez genuen horrelakorik espero. Aurretik zenbait operazio izan zirenean zerbait komentatzen genuen, baina itxi egingo zutenik ez zitzaigun inondik inora burutik pasa. Sorpresa izan da, batez ere guzti honen inguruan egin duten muntaia. Operazio polizial hutsa izanda eta orain justiziaren estalki horrekin nolabait disimulatu nahian dabilta. Ixtea harrigarria izan da. Itxi egin nahi zuten, itxi dute eta orain errudun batzuk bilatu behar dituzte eta hor daude zortzi pertsona kartzelan. Argi dago: egin egunkariak eta irratia enbarrazu egiten zuten eta sektore zabal bat ixildu nahi izan dute.

Ia bi hilabete pasa ondoren Egin itxita jarraitzen du eta horrela jarraituko du Garzonek Abuztuaren 31an emandako autoaren arabera.

Prozesu honetan ikusten ari garen bidegabekeri eta irregularitate guztiak gutxi balira oraingo honetan Egineko



abokatuek aurkeztutako errekurso bati erantzunez dator errekursoa atzera botatzea. Abokatuek jakin aurretik filtratu egin dute autoa. Horrez gain, autoan ez du inolako datu zehatzik ematen. Zuzenean Egineko ikerketa taldera jotzen da eta nik zera gogoratu nahi dut: talde honek emandako informazioa gezurra denik oraindik ezin izan dute foga. Pepe Rei ere absolutu egin zuten eta!

Zein da Egineko langileen egoera momentu honetan?

Egoera larria, kale gorrian gelditu baikara. Hala ere gauza bat argi daukagu: Egin egunkaria eta irratia historia amaitu da, baina berri bat etorriko da. Egineko langileak 3 enpresetan banatuta geunden: Lema 2000, Hernani inprimategia eta Orain S.A. Bi lehenetako langileek ez

dute langabezia kobratzen hasteko arazorik izan sede soziala Gipuzkoan baitzuten. Guri berriz, Orain S.A. ko langileei ez digute langabezia kobratzen utzi nahi. Bi elkarte autonomotako langileak gaudenez, Gipuzkoa eta Nafarroakoak, Madrileko lan ordezkariak erabaki behar zuten expedientea onartu edo ez. Gasteizko lan sailak, lau hiriburutako lan sailek, enpresak eta komiteak aldeko erabakia eman zuten, baina Madrilekoak hartzen duenez erabakia, honek atzera bota eta guk ezin dugu langabezia kobratu. 18-20 urtez kotizatu duen jendea badago. Dirua kentzen zigutenean ez ginen gaiztoak eta ordaindu behar digutenean gaiztoak gara? Gurea den zerbait eskatzen ari gara eta lortuko dugu.

Josu Aranberri

ZURE IZEN-ABIZENAK EUSKALDUNDU NAHI BADITUZU, ETORRI ZAITEZ GUREGANA, GUK LAGUNDUKO ZAITUGU!



Kale Nagusia 37
Telf.: 36 03 21



USURBILGO UDALA

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA



EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Udarregi ikastolako ikasleak Agerialden

Udarregi ikastolako eskolaurreko haurrek hemendik aurrera ez dute Kalezarrera joan beharrik izango. 1998/99 ikasturtean orain arte Agerialde ikastetxeak erabili dituen geletan emango dituzte klaseak. Hauekin batera, lehen hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleak egongo dira Agerialden.

Agerialde ikastetxea desagertu ondoren gela ugari hutsik zeuden. Udarregi ikastolak gela hauek erabiltzeko baimena eskatu zion hezkuntza sailari eta honen erantzuna baiezkoa izan da. Udarregi ikastolak 14 gela erabili ahal izango ditu 1998/99 ikasturtean.

Ikastolako gaztetxoek bertan ikasten hasteko dena prest utzi zuten abuztuaren azken astean. Izan ere, eskolaurreko



eta lehen hezkuntzako bi lehenengo mailetakoa haurrek egongo dira hemendik aurrera Agerialden. Beraz, datorren ikasturtean eskolaurreko haurrek ez dute kalezarrera joan beharrik izango.

Oraingoz Udarregi erabiltzeko baimena badu ere udalak

“desafekzioa” eskatzeko asmoa du urtea amaitu baino lehen. Orain ikastetxe hau erabiltzeko baimena badute ere “desafekzioak” aurrera egingo balu, aurrerantzean, Agerialdeko gela guzti hauen jabetza udalaren eskuetan geldituko litzateke.

Usurbilgo Lanbide Eskola

ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK


- Mekanikan Teknikaria
- Ekipo eta Instalazio Elektronikoak

GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak

LANBIDE HEZIKETA. BIGARREN MAILA

- 3. LHII Automatismoak
- 3. LHII Mekanika



MATRIKULA EPEA:
IRAILAREN 7etik 11era



Bota bertsoa

Bertso berriak estropadei jarriak

Iraillean da aukera
beraz Donosti aldera
ta estropadak badatozkigu
joateko bertara,
sartu orduko kaiara,
trabesak egiten hara!,
galtzen dutenak nahikoa triste
besteak algara.

Orio dabil aurrean
ustez nahiko indarrean,
kontxa horretan izango dira
denen beharrean,
nahiz pasaitarrak urrian,
besteak ere ez atzean
sorpresaren bat emango dute
horiek agian

Esitropadek duten saltza
jendeak hartzen du martxa,
arraun kontuak egiten gaitu
gu bai azkar altxa,
olatuaren balantza,
gazia edo garratza,
norentzat ez da ikusgarria
Donostiiko Kontxa.

Bukatu nahi nuke baza
aurkitua ba dut gauza,
nere barruan izango nuke
behar nahiko poza,
ez da une aldrebesa,
egiteko ere trabesa,
arraularien kontura orain
denok ondo pasa.

Egilea: **Ebaristo Pikabea**
Doinua: "Aizak hi mutil mainontzi"

Errezeten txokoa


Kokotxak koskera erara

Osagaiak:

Kokotxak hezurrik gabe.
4 baratxuri buru.
Oliba olio 2 dezilitro.
Perejila.

Kokotxak ondo garbitu eta guraize edo laban batekin gelditzen zaizkion hezurrik kenduko dizkiogu. Ondoren trapu lehor batekin lehortu eta gatza botako diogu. Bien bitartean jarri gradu bateko oliba olio duen buztinezko ontzia sutan. Berotzen denean baratxuria bota txiki-txiki eginda eta belzten hasi baino lehen kokotxak ontzian jarri azala beheruntz dutela. 30 minututan ontzia estalita sutan eduki. Hori bai, denbora horretan etengabe mugitu behar da ontzia. Sutatik ateratzean perejila txiki-txiki eginda bota, zertxobait mugitu eta bero-bero mahaira aterako ditugu koskera erara jarritako kokotxak. On egin.

Lehiaketa



Zer kolore zuen Usurbilgo trainerak?


Asmatzaileen artean **Arraten** bi lagunentzako afaria zozketatuko da.

"Larros bat du Usurbilek, politena politena...". Behin baino gehiagotan entzun eta kantatu izan dugun abesti ezagunaren hitzen egilea **Antton Aranburu** da.

Erantzuna jende askok asmatu badu ere **Praisku Aranburuk** izango du **Antxetan** afaltzeko aukera. Zorionak!

Kale Nagusia, 9
Tlf. 943 37 33 48
943 37 09 13

USURBIL



Ekaitz

Bideo eta ARGAZKIak

Usurbil

tlf 943 36 14 87

oIARTZUN



Musika nahi? Zumartera orain

Udako oporrak amaitu dira. Ekainaren amaieratik gazte asko oporretan egon ondoren ikasturte berria gainean daukagu eta dagoeneko Zumarte musika eskolako matrikulaketaren berri emateko ordua iritsi da. Irailaren 7tik 11 bitartera izango duzue musika eskolan matrikulatzeko aukera.

Usurbilen eta hemendik kanpo ere bai, ezagunak dira musika eskolak egiten dituen ekitaldi eta irteerak. Usurbilen eta baita beste zenbait herri-tan ere, hainbat kontzertu eman ditu Zumarte musika eskolak azken urte hauetan.

Pasa den urteko ikasturtean adibidez, Santa Zezili eguneko kontzertua, ihauteritako "angularen ehorzketa", Zumarragako "Antigua abesbatzak" lehiaketa, Donostian Catalina de Erausok antolatutako hamabostaldi musikala, Lasarte eta Orioko musika eskolekin egindako elkar trukaketa, Donostiako belodromoan Euskal Herri osotik etorritako abesbatzekin batera egindako "Kantata 98" eta nola ez, ikasturteari amaiera emateko Oiarde kiroldegian antolatutako jaialdian izan ziren musika eskolako ikasleak.

Ekitaldi guzti hauetan parte hartzeko, ordea, musikariak behar dira eta musika eskolan landutakoaren ondorioz sortzen dira ekitaldi guzti hauek. Horregatik, musika ikasi nahi



duen edonork orain du bertara joan eta pixkanaka-pixkanaka giro horretan murgiltzen hasteko aukera.

Musika eskolan matrikulatzeko gutxieneko adina 7 urtekoa da eta urtebete musika mintzaira ikasten jardun ondoren aukera daitezkeen instrumentoak honako hauek dira: tronoia, saxofoia, bibolina, perkusioa, klarinetea, alboka, trabeskako flauta, pianoa, tronpeta, txistua, kitarra eta esku-soinua. Guzti hauetatik, tronoia, saxofoia, tronpeta eta bibolina jotzen ikasten hasten diren ikasleei, nahi izan ezker, Zumartek utziko die instrumentoa urtebetez behintzat.

Zumarte musika eskolak eskaintzen duen irakaskuntza maila aurrera eramateko, ordea, musika irakasleak behar dira eta hauek ahalik eta maila onenekoak izateko ondoren adierazten da matri-

kulagatik ordaindu beharrekoa:

- Musika mintzaira: 15.000 pzt.
- Instrumentoa: 15.000 pzt.
- Musika mintzaira eta instrumentoa: 30.000 pzt.
- Abesbatza bakarrik egin nahi duenak: 10.000 pzt.

Horrez gain, instrumentoa ikasten duten ikasleek hileroko kuota bat ordaindu beharko dute. Kuota hori aurten 2.200 pezetakoa izango da.

Zumarte musika eskolan matrikulatu nahi duzuen guztiok, **irailaren 7tik 11 bitartera** Zumarte musika eskolan bertan eman dezakezue izena. Epe honetan arratsaldeko **17.00etatik 20.00etara** ateak zabalik izango dituzu. Informazio gehiago nahi izan ezker arratsaldez dei dezakezue Zumarte Musika Eskolako 943-371594 telefonora.

Zumarte Musika Eskola

B A Z K I D E T X A R T E L E A

5.000 PEZETA URTE OSORAKO

Noaua!!
HAMABOSTEKARIA

Izena: _____
 1. Abizena: _____
 2. Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Tfnoa: _____
 Kontu Korrontea (20 digito): _____

416

bazkide ditu Noauak.

Zu ere egin zaitez

bazkide

IRAILAK 7 astelehena

- Odol-emaielen **odol emanaldia** izango da herriko anbulategian. 19.00etatik 21.00etara.

Euskal Herria Askatu!ren konzentrazioa. 20.00etan Bordatxo aurreko errotondan.

IRAILAK 14 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa. 20.00etan Bordatxo aurreko errotondan.

IRAILAK 16 asteazkena

- **Andatzpe elkarrearen 50. urteurrenaren** ospakizunen barruan **kirolari desberdinekin mahain-gurua**. Parte hartzaileak:

Martin Alustiza (pelotaria)

Haimar Zubeldia (txirrindularia)

Joxe Migel Peñagarikano (aizkolaria)

Pello Errasti (pisu jaurtitzaila)

Inaxio Unanue (tiratzailea)
Arratsaldeko 19.30etan
Udarregi zaharrean.

IRAILAK 17 osteguna


- **Andatzpe elkarrearen 50. urteurrenaren** ospakizunen barruan **gastronomia hitzaldia**. Parte hartzaileak: **Felix Sarasola, Napoleon Lertxundi (Saizar) eta Joxe Anjel Aginaga (Illunbe)**. Arratsaldeko 19.30etan Udarregi zaharrean.

LANPOSTUAK

- ✓ **Arrasateko udalak** udaleko idazkari lanpostua betetzeko **idazkari bat behar du**. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 7a. Informazio gehiago G.A.O.ko 155. zenbakian.
- ✓ **Euskal Herriko Unibertsitateak** administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko **hiru langile behar ditu**. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 7a. Informazio
- ✓ **Amorobieta-Etxanoko udalak** **delineatzaile bat behar du**. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 13a. Informazio gehiago G.A.O.ko 159. zenbakian.
- ✓ **Alegiko udalak** **administrazio orokorreko administrari laguntzailea eta peoi lurperatzailea behar ditu**. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 7a. Informazio gehiago G.A.O.ko 155. zenbakian.
- ✓ **Gaintzako udalak** eginkizun anitzeko **operario bat behar du**. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 9a. Informazio gehiago G.A.O.ko 158. zenbakian.
- ✓ **Gazteluko udalak** ekintza anitzeko **aguazil bat behar du**, behin befirako eta jardunaldi erdirako. Eskaerak aurkezteko epea irailaren 13a. Informazio gehiago G.A.O.ko 159. zenbakian.

gehiago G.A.O.ko 155. zenbakian.

**euskal preso guztiak
gure artean behar ditugulako,**



**irailaren 19an, larunbata,
*Segoviara goaz***

Ramon Uribe bisitatzera


Zatoz gurekin!

**autobusa antolatu dugu,
apunta zaitetze ohiko lekuetan**

Gure artera bilgunea

MAHUKA

Irailaren 8an berrituta gatoz. Hemendik aurrera
gizonezkoen arropa ere aurkituko duzu gurean!



ANDAMIO

Now New!
DESIGN



JEALFER
DESDE 1954

CHARMANT

PAZ TORRAS

CASTER
Jeans

SABBATH

NOMINAL